

# Alemaniko gaztedia ta politika Munduan

(JARRAIPENA) esaten DANA

## AJOLAGABEAK 50 %

Izenak berak dionez talde onen barruan prolemak ezagutzen ez dituztenak, preokupatzen ez diranak eta prolematzaz ezertxo ere jakin nai ez dutenak sartzen dira. Beraz, ajolagabeak, interesgabeak, beste

dirala ikusiko degu. Onek interes- zela gainera onartu bear da gazteak euren etorkizuna ain garbia ikustea eta batez ere beren familiariko bizi- tzari ta beren profesio etorkizunari geiago begiratzea.

Orrela uste izan arren gazte auk

emakume izateari, bere eskolari, be- re jaioterriari dagokionez begiratzin baldin baditugu, oien artean gei- uak oso gazteak, neska gazteak, ba- sserrietakoak eta eskola elementala edo teknikoak bakarrik pasa dutenak dirala ikusiko degu. Oie interes- eza batez ere jakite gutxiagatik sor- tzen dala adierazten du.

Gaztediaren artean joera onek 50 % biltzen ditu. Aibeste izateara arrigarri iruditzen baldin zaigu ez degu ahaztu bear interes-eza au oraindikan audiogoa dala zaharragoen artean eta gazte- dia ta politika beren artean arrotz egiten dirala.

Ajolagabe auk politikara azal- tzea edukazioaren zeregin bat da. Politika jakin erazteko bideak oraindikan aurtzaroan arkitzen di- ra. Asko pentsatu ta landu bearo da gai politikaren edukazioa esko- letako gai ba ez ezik bizitarako zerbait bezela erakutsi erazi arte.

## ESZOPTIKOAK 8 %

Ajolagabehen artean ez jakitea, politikatzaz gutxi jakitea baldin ba- da seinalerik audienea, eszeptikoen

Gazte auetan alkatu ezineko bi joera arkitzen ditugu. Alde batetik nai dute ta bestetik ez. Alde bate- tik gazte auk politikari eske bere- zi ta audiak egiten dizkiote eta bestetik berriz eske auk ez dituzte beteta ikusten, ezta gutxiago ere.

Izan ere auk ez dute inola ere leguntasunik onartu nai beren eska- bidetarako. Dana edo batere ez. Ez dute konpromisoa maite. Eszopti- katik relativistak, zinikoak, eszopti- koak bihurtzen dira ideak ez dute- lako munduan agintzen.

Zenturen batean joera onek ideak guztietatik baztertzen ditu; orregatik zero kritikazaille biur- tzen dira, kritikazaille zorrotz, bu- rutsu ta gogorrak; onela ipokresia, aunditasuna ta ideia aundia zero ezereztzen dituzte.

tiaren balioa zalantzan jartzen du- te. Bere eszeptizismoan alik eta geiten erriko eingikizunetatik apar- tatzin saiatzen dira.

Eszeptikoak ez dira ain ugariak gaztediaren artean. Gutxi gora bera 6 edo 8 % dira. Batez ere erri au- ndi xamarretan arkitzen dira baxi- lleratoa ta unibersidadeko zerbait egin dutenen artean. Erru audie- gia da gaurko gaztedi guztia, auk dirala ta, eszeptiko bezela artea, amarretik bat izatera ere ez dira irixten eta.

## EZEREZTZALLEAK 2 %

Auk konprometituen aldrebes aldrebesak dira. Auk gizonaren kontra, gizartearen kontra eta Esta- duaren kontra konprometitzen dira. Auk gorroto dizete gaurko gizonai ta gaurko gizarteari, gutxienean gaur ezagutzen diran moduan. Ori dala ta, utopi antzean, izugarriko sistemak jartzea pentsatzen dute.

Gazte auetan eszeptizismoa gorro- roan biurtzen da ideologi baten itzalean. Auk zenbat diran jakitea erreza ez izan arren 1 edo 3 % di- rala esan ditek.

Azkeneko bi taldetako gazteei eman bear zaie edukazioa nolakoa izan bearo duan pentsatu baiño le- hen euren artean geienak tarak edo berbizio miñ personalak dituztela kontuan artu bear degu. Gazte auk euren tara ta miñak filosofira ta politikara pasatzen dituzte. Orregatik edukatzaileak lenen lenen tara ta miñ oiek sendatzen saiatu bear du, politika ta filosofiarene gaiak ikuitu baiño lehen.

## GAURKO GAZTEDIA

Gaztedi baten barruan arkitzen ditugun joera ezberdiñak ikaskizun bat dakarkigu: gaztedi bat ez da zero berdiña baizik eta batez ere *complexio oppositorum* bat. Gazte- di bati, oso osoan, jantzi berdiña jir- rari nai izateak XIX<sup>gn</sup> g. gizaldiko oi-

The New York Times.

Ego-eguzkialdeko Asia

"iVietnam, Laos eta Cambodge" rako soluziorik ez arkitzeak, pol- liki poliki tratuetan sartzera bultzatzen du. Orain Estadu Ba- tuak gogor ukatu dira nolamaiko tratuetan sartzeko, batez ere el- kar-izketan jartzeko maiko in- dartsu arkitzen etziralako eta batez ere onela Komunisten Txina'rekin batera mai berdi- ñean exeri bearo lukielako. Ta Estadu Batuak Komunisten Txina inola ere ezin ezagutu oraingo politikari jarraitzekotan beinepein. Baiñan noizbait "neutralizazio" gaiak tratatu bearo dira mai batean eta or- tarako beinere baiño obetogo arkitzen dira Estadu Batuak, batez ere Tonkin gertatu ziran zalaparten ondorenean.

## Le Monde

Libano'ko lendakari berria

Oraingo lendakari berriak On Charles Helou'k bere karrera guztian, periodista zalarik, le- ge-gizona zalarik, ministro za- larik, eta Turismo gaietako Ofi- zinetako bueu izanik, orain Li- bano'ko lendakari biurtu dan gizon argi onek zera adierazi du, alegia prest egon dala beti liba- notar geienen iritziak serbitu- tzeko.

OIAL BIKAIN BERRI ERAKUSTEGIA

ALDAMAR

Zuzenbidea: Aldamar, 2 (Reina Regente etzean) Urrutizkiña 1-54-65

DONOSTIA



era batera esatek erri ta estaduaren goraberatik etzean dabilzanak.

«Politikaren gainean ezer ez da- kitenen» aldemenan prolemaz jo- siak daudenak eta erremedio gabe- koak optimista ugari arkitzen dira. Azkeneko cuek bere bizi-modu partikularrean milla prolema daukate ta ez dute beste ezertarako betarik, auei politika zer moduz dabilen galdetzen baldin bazea dana ondo dijoala erantzungo dute, kontentu daudela ta ez dutela bildurrik eta ez dutela uste guda berriro izango danik... Ezin ditek a priori gazte aroetako kontzientzia-eza au bazer- tu ta kondentzerik, batez ere nes- ken artean gertatzen danean. Eta kontuz ibili bear da oiek kondena- tzerakoan bear gai personalak gei- gi maite dituztela edo konformistagi

ez dira politikan ideia gabekoak, baiñan beren ideiak topiko antze- koak dira; esate baterako beren burua gizon txiki bat bezela dauka- te ta seguru daude istoria gizon audiak egiten durenak.

Baita ere buruan sartuta daukate ez dagola indarrerik, aginterik, az- kenean edozein gauzak ez dualako ezertarako balio eta dana irixten da eta ez da ezer irixten, eltzen, gertatzen gertatu bear ez duanik.

Beste topiko batzuek: politikak karakterera gaitortzen duala; emak- kumeak ez dutela politikan ezer egi- tekorik; erri bakoitza, nazio bakoitza bear lekuan egon bear du eta atzerriarrak ez dute an ezer egi- tekorik...

Ajolagabe guztiak, interesgabe guztiak bere urtei, gizonetako edo



Euren eszeptizismoa ez dijoa gi- zon politikoen zereginak aztertzera artean bizi bizia arkitzen da politi- kari ematen zaion ezezkoa, ta orre- tzaz gainera politikaren kaitzean egi- ten diran pentsaketa beltz eta goi- belak arkituko ditugu, politika gau- za zikiña ta nazkantea dana esanaz, bakarrik baizik eta informazio guz-

turak adieraziko lituzke jakintsu batengan. Dana dala uste det gaur- ko gaztediaren gaurik seinalatuen dala ez dutela generazio bezela ze- regin istorikorik, ez dutela ta ez du- tela izan nai ere. Beren etorkizu- natzaz itzegitea, etorkizun istorikoaz- tiaz itzegitea, probintzianoa izatea iruditzen zaie.

## NAZIO-ARTEKO UNEA

# TOGLIATTI'REN ERIOTZA

Komunismoak gizon onen eriotzarekin mundu zabal guztian zeuzkan gizonen artean burutsuetakoa ta balio aundienetako bat galdu du. Frantzia'ko Thorez'ekin bezela azkeneko urte aue- tan komunismoaren jokabidea ondo ikusteko inola ere ezin de- zakegu ahaztu Togliatti'k jokatu duan papera. Ezin zitezien bes- teta izan Okzidenteko Partidu Komunista indartsuaren burua. Ez dezagun ahaztu Italia'n azkeneko elektzioetan lau ita- lianoetatik batek bere botua komunistentzat eman zuala.

Okzidentearen barruan ta are geiago Elkarrekin Merkatua- ren barruan gizon onek eta bere atzetik Italia'ko Partidu Kom- unistak artutako erabakiak ez dira ondorenik gabekoak. Da- kigenez Elkarrekin Merkatua sortu zan ezkerrotik, Errusla'ri ala komen ta, Frantzia ta Italia'ko Partidu Komunistak oso osoan eta bat batean bere kontra jarri ziran. Ori orrela gerta- turik, naz eta beste sindikatoak (sozialistak eta kristauak) be- ren ordezkarialk izan Elkarrekin Merkatuaren ekonomia ta gi- zarte batzarrean komunisten obedentziko sindikatoak (Fran- zia'n eta Italia'n sindikato indartsu ta ugarietak) etsizutzen bereak inoiz ere bidali nai izan. Baiñan gaurko politikan errea- lismoa da agintari ta gizon burutsu guztiak orretzaz konturatzen dira. Togliatti izan zan komunistak ere Elkarrekin Merkatua- ren sergetietan parte artu bear zutela pentsatu zuana ta orta- rako alegia gelenak egin zituana.

Italia'ko Partidu Komunista umezurtz gelditzen da. Ori da persona baten gainean bakarrik bizi diran estadu ta partiduak kaltea ta errua. Ori falta ezkerro danak umezurtz. Asarreak, di- bisioak...

Komunista bezela dudarik ez kalte aundia egin diona Italia' ri baiñan berak esan ezakean ortarako 25 % Italiako (enganatu) beregan siliatu zutela.

RIKARDO ARREGI

OSBORNE Y C.<sup>IA</sup> S. A.

Coñac VETERANO

Coñac MAGNO

Coñac zarrak eta onak